



**1936.URTEAN ERAHILA TA  
BORTXATUA KOMUNISTA  
IZATEAGATIK...**

**OMENALDI: ABUZTUAK 10**

**12:00**

**SANTO DOMINGO KALEA 73  
HERRIAK EZ DU BARKATUKO**

## **Camino Oskotz Urriza**

Hemen gaude omenaldi txiki honen bitartez Nafarroan 1936an, desberdin pentsatzeagatik , aske izan nahi izateagatik , faxismoaren aurka jotzeagatik ; erreakzionatzeko denborarik gabe , odol hotzean erailak izan ziren emakumeak gogorazteko...

Emakume horien izenak durundatzen dute Iruñeko Alde Zaharreko kale bakoitzean, bihotz eta arima bakoitzean, ahaztuak izan ziren emakumeak eta gaur ahaztu nahi ez ditugunak. Horietako bat María del Camino Osoz Urriza izan zen, maistra, komunista, frankistek eraila 1936ko abuztuaren 10ean, Urbasan.

Bere bizitza laburra izan zen denboran, baina oso zabala bere borrokan. Camino, hezkuntzan korrante harrigarri, nekaezin, borrokalari, itxaropentsuaren adierazlea izan zen; berdintasunaren aldeko borroka, hezkuntza publikoa eta ezagutzaren transmisioa gorpuzten zituzten maistrek ordezkatzeko zuten korrante horretakoa. Emakume ezkertiar eta solidarioa, ekintzaile ezaguna, Faxismoa, kapitalismoa eta Patriarkatua defendatzen zituztenei aurre egin behar izan zieten emakumeetako bat. Klaserik gabeko gizarte baten aldekoa.

Camino Atxilotua izan zen , bahitua, hainbat aldiz bortxatua, torturatua, zikin paseatu, eta arropak apurtuta, Iruñeko katolikoek bere martirioa areagotzen zuten bitartean. Ondoren, errepidera atera zuten, non komunio tradizionalistako karlistek lurrera bota zuten eta tiroz hil zuten. Ondoren, Pilatoseko balkoitik bota zuten, Urbasan , eta ehunka metrotik erori zen Baquedanoiraino, 26 urte zituela.


Gaur egun emakumearen egoera ez da askorik aldatu, oraindik Kapitalismoa eta patriarkatuek zapaltzen gaituzte, horregatik borroka horretan bizitza eman zuten emakumeen bideari jarraitu behar diogu, Euskal Herri aske eta klaserik gabekoa lortu arte.

Hori izanen da gure omenaldirik onena.

**Gora emakume iraultzaileak!**

**Garaipenerarte, JO TA KE !**

**Herritar Batasuna**



OMENALDIA  
CAMINO OSKOTZ  
ABUZTUAK 10

1936. Urtean erahila ta bortxatua  
komunista izateagatik

Omenaldi:  
abuztuak 10  
12h

Santo Domingo kalea 73.  
Herriak ez du barkatuko.